

“SARIEN BAT LORTZEA MOTIBAGARRIA DA BETI IKASLEENTZAT”



Axular Lizeoa | Larraitz Artetxe | Kosmojakintsu Txikiak | Lehen Hezkuntza 1

Arrakasta bikoitza Axular Lizeoarentzat Lehen Hezkuntza 1 kategorian. Bigarren saria lortu duen Kosmojakintsu Txikiak taldeko arduradun José Ramón Iturainek honela dio.

Ikastetxe bereko bi talderen arteko lehia estuak motibazio berezia eragin du?

Ez, nahiko giro polita egon da bi gelen artean.

Kosmodiseak aurrera egin ahala parte-hartze handiagoa izan dute ikasleek, edo, alderantziz, hasieran gogo handiz hasi eta ondoren hoztu egin dira?

Lehiaketa aurrera joan ahala motibazio handiagoa ikusten zen ikasleen artean. Gertuago ikusten zuten lorpena.

Lehiaketaren egiturak ikasturtearen jarduna oztopatzen du edo elkarren osagarri dira?

Osagarriak dira.

Sari baten bidez aitortuak izateko aukerak motibatzen al ditu ikasleak?

Garbi dago baietz. Garrantzitsuena parte hartzea dela esaten da, baina ikasleentzat beti da motibagarria zerbait lortzea.

Eta irakasleak? Ikastetxea?

Ikasleentzat bezalaxe.

Zein izan da Kosmodisean bizitutako esperientziaren onena?

Talde lanean nola moldatu diren ikustea. Denek izan duten aportatzeko jarrera besteen errespetatuz.

Zailtasun handienak noiz eta zergatik sortu dira?

Wikiarekin gauzak argitaratzeko garaian izan genituen arazoak.

Edizio hau eta aurrekoak ikusi ondoren, ekimen honetan parte hartzearen esperientziak zein ondorio ekarri dizkie ikasleei?

Kosmodisean parte hartzea beste hainbat lanekin batera baliagarria da lehen esan dugun bezala talde lanaren garrantziaz jabetzeko, teknologi berrietan trebatzeko era motibagarri batetan, sormena eta ekintzaletasuna bultzatzeko...

Eta irakasleei?

Gelan, modu desberdinetan lana egin daitekeela konturatzeko.

Zortzigarren Kosmodisean parte hartzeko prest zaudete?

Bai.